

EUSKARAREN Berripapera

100. zenb. • HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA • 2000ko iraila

Nafarroako toponimia

Behin betiko izendegia argitaratu da



Nafarroako Toponimia. Hizkuntza normalizaziorako Irizpideak eta Herrien Izendegia liburua kaleratu du Nafarroako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak. Bi asmo ditu liburuak. Batetik, Nafarroako Euskara Kontseiluak onartu zituen toponimia nagusiaren normalizaziorako irizpideak zabaltzea. Bestetik, orain arte toponimia arautzeko atera diren lege, foru-dekretu eta bestelako arauen berri ematea. Liburu honetan nafar herrien behin betiko euskal izendegia dator, Nafarroako izenak euskaraz nola idatzi behar diren adieraziz.

Argitalpenean 1990ean argitaraturiko izendegia gaurkotu eta berritu da. Ontzat eman dira izen batzuk: Artaxoa, Ardatz, Beraskoain, Bakedao... Azaleko aldaketak egin zaizkie beste batzuei: Asterain, Jaurrieta, Markalain... Baztertu euskalduntzat hartzen ziren zenbait: Urantzia eta Alesbes, esaterako. Bestalde, Erriberako toponimoen gaztelaniazko izenak onartzea erabaki da: Corella, Cintruénigo, Ribaforada, Cabanillas...

Eusko Ikaskuntzaren Jakinet

Graduondoko prestakuntzan teknologia berriak aplikatzearen alde ari da Eusko Ikaskuntza. Jakinarazi denez, datorren urritik aurrera, urrats berria egingo du elkarte honek *Jakin* izeneko elkarreraginezko ikastaroaren bidez. Eusko Ikasgaietan espezializatzeko, gutxienez bost kreditu egin beharko dira, hau da 50 klase-ordu. Unibertsitate Aditua titulua eskuratzeko, berriz, ikastaro osoa jarraitu behar da.



EUSKO IKASKUNTZA

Ikastaroan parte hartu nahi dutenek datorren irailaren 30a baino lehen bete behar dute izenemate-orria. Helbidea: www.eusko-ikaskuntza.org/jakin



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Hizkuntzaren eta Politikaren Sailburuordetza

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: I-Sosoaga@ej-gv.es

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Kodea:

Lurraldea:


Tel.:

e-posta:

4

Lege-gordailua: VI-572-1992
ISSN: 1138-3038





EUSKARAREN Berripapera

sumarioa

1 • Abegi euskaltegiak

- ### 2
- Pertsonaia:
Mark Kurlansky
 - Laburrak:
Ione, igo zerura
Añamendi
Entziklopedia
 - Agenda:
Xagux@arrak:
Donatoren tertulia

- ### 3
- Euskalgintza deialdia
 - Maupassant-en
Fantasiatzko ipuinak

- ### 4
- Nafarroako toponimia
 - Eusko Ikaskuntzaren
Jakinet

Abegi euskaltegien ekimen berria

Helduen euskalduntzeko autoikaskuntza-gela

Autoikaskuntza-gela ireki dute Abegi euskaltegiek, bide berria euskararen irakaskuntzan, gizarte-premietara egokitua. Ikasteko modu ezberdina eta aukera zabala eskaintzen du: ordutegi malguak, nor bere erritmoan aritzea, etxetik edota lantokitik bertatik ikastea... Espazio- eta denbora-mugak hausten ditu gela honek.

BEHAR BERRIAK

Ortzadar, Altza, Monpas eta Rikardo Arregi-Urumea euskaltegi-taldeak osatzen du Abegi. Urteak daramatzate ohiko ikastaroak eskaintzen eta oraingo proiektua era berria da helduen euskalduntzeko bidean. Batetik, azpiegitura informatikoa berritu dute euskaltegian, HABEren Habenet web-orriak eskaintzen dituen Internet eta Intranet erabiltzeko. Bestetik, autoikaskuntza-gela zabaldu dute, ikasleak bertan dituen baliabideak nahi duen erritmoan eta ordutegian erabiltzeko.

Irakaslearen presentzia fisikorik gabe ikastea da autoikaskuntza, eskolatik kanpo eta irakaslearen kontrol zuzenik gabe. Helburua, berriz, ikasprozesua erraztea, telefono-sistema eta autoikaskuntza-gelaren bidez. Lehenengoak lekuaren muga hausten du, ikasleak eta irakasleak ez baitute toki berean egon behar. Bigarrenak beste muga bat ere hausten



du: denbora. Gelak ordutegi zabala eskaintzen du eta malgutasuna eskaintzen dio ikaslearen erritmoari.

Era askotako ikasleek erabil dezakete autoikaskuntza-gela:

- Euskaltegiko eskolen osagarri gisa, ikasprozesua azkartu nahi dutenek.
- Ikasteko estiloarengatik, helburu bereziak dituztelako... bakarrik ikastea gogoko dutenek.
- Erritmo eta ordutegi finkoa jarraitu ezin dutenek.
- Euskaltegietara etorri ezin direnek.

Autoikaskuntza-gelan, gainera, aholkulari bat izango da, ikaslearen hasierako diagnostia egiteko, ikasprozesuaren aurrerabideak zehazteko eta autoebaluzioaren irizpideak markatzeko.

Gelan ondoko txokoak ere garrantzi handikoak dira.

- Ordenagailu-txokoan Habenet eta Hezinet eskuera ditu ikasleak. HABEk euskaltegiei eskaintzen dien euskara ikasteko programa informatikoa da Hezinet.
- Fitxen txokoan ikasleak ariketak ditu, paperean. Hiztegiak, kontsulta-liburuak, argitaraturiko materiala eta beste ere aukeran dira.
- Entzumen-txokoan telebistak, bideoak eta kasetak daude.
- Irakurmen-txokoan literatura-liburuak, aldizkariak, egunkariak, e.a. daude.

Hala ere, autoikaskuntza-gelaren helburua ez da irakaskuntza tradizionala ordezkatzea, euskaltegien eskaintza handia gizar-teari helaraztea baizik.



EUSKALDUNON EGUNKARIA



EUSKARAREN Berripapera

100. zenb. • HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA • 2000ko iraila

Laburrak

Ione, igo zerura

Aurten euskaraz estreinatu den lehen filma da *Ione, igo zerura*, Joseba Belokik zuzenduriko lana. Joan den ekainean eman zen euskaraz estrainekoz Usurbilgo Urbil merkataritza-zentroan eta harrezkero Donostian ere izan zen ikusgai.

Ione, igo zerura Valentziako Mostran erakutsi zuten aurrena iazko irailean eta Euskal Herriko areto komertzialetan, berriz, hurrena.

Auñamendi entziklopedia Interneten



EUSKALDUNEN HIZKUNTZA

Interneten izango da udaz gero *Auñamendi* entziklopedia. Eusko Ikaskuntza ari da bertsio digitala prestatzen, eta Eusko Jaurlaritzak eta EAEko aurrezki kutxek diruz lagunduko dute. Bernardo Estornesek sortu zuen entziklopediak 30.000 orri, 50.000 irudi eta 100 milioi karaktere baino gehiago ditu.

Pertsonaia

Mark Kurlansky

The Basque History of the World argitaratu du eta 40.000 ale baino gehiago saldu ditu EEBBetan



ARGIA

Kazetari eta idazle estatubatuarra da Mark Kurlansky (Connecticut, 1949). Euskaldunak hizpide erabili ditu berak idatzi dituen azken bi liburuetan: *Cod: A Biography of a Fish that Changed the World*, eta oraingo *The Basque History of the World*. Lehengo neguan eman zuen argitara liburua eta 40.000 ale baino gehiago saldu ditu dagoeneko.

Kurlanskyk 70eko hamarkadan egin zuen lehen bisita Euskal Herrira, Francoren diktaduraren azken garaia berri emateko. Erresistentziaz idatzi zuen, eta berak esatera "kultura zahar, aberats eta berezi batez ere bai".

1990eko hamarkadan erabaki zuen liburu honi ekitea. Horretarako, hainbat lagun -politikoak, sukaldariak, pilotariak, idazleak, nekazariak, negozio-pertsonak...- elkarriketatu du, eta iturri idatzietara ere sarri jo zuen. Euskaraz ez dakienez, gaztelaniaz, frantsesez eta Nevadako University Press-ek ingelesez argitaraturik dituen liburuak erabili zituen. Azkenik, bere ikuspegi propioa osatu du, liburuan erakutsi duena, alegia.

EUSKAL HERRIAREN HISTORIA

The Basque History of the World-ek 400 orrialdetik gora ditu, 56 irudi, 6 mapa eta 10 errejeta. Bertan Euskal Herriaren historia idatzi du Mark Kurlanskyk. Era berean, berak ikusitakoaren kronika tartekatuta idazlanetan. Hiru atal ditu liburuak: "The Survival of Euskal Herria", Gerra Karlisten aurreko historia egiten duena, "The Dawn of Euskadi", Gerra Karlistak eta Francoren heriotza bitarteko aldia, eta "Euskadi Askatuta", 1975etik gaurdainoko denbora.

Hiru atalotan zehar, euskara, jaiak, erlijioa, euskal sinesmenak, nazionalismoa, txapelaren historia eta beste hainbat gai lantzen ditu idazleak eta berak adierazi duenez, euskaldunen gainean munduan den uste okerra zuzentzea ere bada lanaren helburua.

Kritika onak jaso ditu liburuak EEBBetan, bai eta Kanadan eta Erresuma Batuan ere. Atzerritarrek Euskal Herria hobeki ezagutu ahal izango dute hemendik aurrera Kurlanskyren lana irakurririk. Era berean, kanpotarrek euskaldunok nola ikusi gaituzten aztertzeko ere balio digu. Finean, gutxi-asko, geure burua erretraturik ikusiko dugu, hots, geure burua hobeki ezagutzeko bidea.




ARGIA


Agenda

Xagux@arrak: Donatoren tertulia

Irakurzaletasuna bultzatzeko kanpainaren garaia da. Hiru urteko iraupena izango duen kanpainak zenbait urrats egin zituen joan den ikasturtearen amaieran, baina kurso honetan hasiko da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak bisitatzen.

Kanpainaren helburuetan dira ikasleei irakurketa-materialak eskura jartzea, irakasleak irakurtzeak duen garrantziaz jabetzea, eta gurasoen artean irakurketaren aldeko jarrera bultzatzea.





EUSKARAREN

Berripapera

100. zenb. • HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA • 2000ko iraila

Fantasiatzko ipuinak, Literatura Unibertsala bilduman

Maupassant-en ipuinak eragin handienekoak dira XX. mendeko ipuingintzan

Ale berria kaleratu da Literatura Unibertsala bilduman. Saileko 84. liburua da eta Guy de Maupassant-en ipuinak dakartza. *Fantasiatzko ipuinak* du izenburu eta hogeita hamalau ipuin biltzen ditu, Josu Zabaletak itzulirik. Liburu honetan bildurik diren ipuinetan, mundurik normalenen ezkututzen den mundurik bixiena ageri da.

1850ean jaio eta 1893an hil zen Guy de Maupassant frantses idazlea. Eleberrigile, kazetari eta ipuin-idazle izan zen eta egunero kontuak erabili zituen gai, begirada ezkor batetik eta xehe-tasun handiz. XX. mendeko ipuingintzan eraginik handienetakoa izan du Maupassant-en lanak. Sei eleberri eta 300 bat ipuin idatzi zituen.



HURRENGO TITULUAK

Literatura Unibertsala bildumaren arduradunek jakinarazi dute zein diren Maupassant-en liburuaren ondotik argitaratuko diren tituluak: Oscar Wilde-ren *The importance of being Ernest* ("Ernesto izatearen garrantzia"), Ambrose Bierceren *Deabruaren hiztegia* eta Alfred Döblin-en *Berlin Alexanderplatz*.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eta EIZIERen arteko hitzarmenaren ondorio da Literatura Unibertsala bilduma eta munduko literaturako 100 titulurik klasikoena euskarara itzultzeko plangintzaren barruan argitaratzen dira liburuok.

Euskaigintza deialdia

Euskara normalizatzeko diru-laguntzak

Euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko diru-laguntzak emango dizkie aurtien ere Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak helburu horietara iristeko programak gauzatzen dituzten pertsona juridiko pribatuei.

Guztira, 94.000.000 pezeta izango dira diru-laguntzetarako, zenbait ataletan banaturik. Besteak beste, euskararen ondarea (kantuak, bertsoak, euskalkiak, etab.) jaso, gorde eta gizarteratzeko egitarauak lagunduko dira; era berean, euskaraz egindako materialak sustatzeko eta bidegarriago egiteko ekimenak edo ekintza-programak, batik bat, haur eta gazteentzat prestatutakoak (aldizkarien harpidetzak ugaritzea, euskarazko bideoak, bideojokoak, jostailuak, joko hezigarriak eta antzekoak, softwareak, etab. zabaltzeko eginkoak, etab.). Euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko egitarauak ere lagunduko dira, eta, azkenik, baita bestelako egitarauak ere: euskararen erabilera aisian, haur eta gazteen hizkuntza gaitasuna sendotzeko antolaturiko egitarauak, monitoreen prestakuntza, material-sorkuntza, euskararen historian edo hizkuntzari loturiko hainbat eremutan izen handia duten pertsonaiak omentzeko edo bestelako ospakizunak antolatzeko jarduerak, etab.

Argibide gehiago nahi izanez gero, jo Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara, 945018090 telefonora.

